

# Hitzaurrea



ausoz pauso, urratsez urrats, *Behinola* aldizkaria 17. zenbakira iritsi da. Zenbaki honetan kulturartekotasunari irekiko diogu leihoa.

Lehenengo eta behin, *Hitz eta Pitz* atalean hiru idazleren iritziak dastatzeko parada izango dugu: JAVI CILLERO, INONGO -VI- MAKOMÉ, JOEL FRANZ ROSELL. Hirurak beren jaioterritik at bizi dira. Literatura eta kulturartekotasunaren inguruan mintzatuko zaizkigu.

Ondoren, *Hizpide* txokoan, GUSTAVO PUERTA LEISSEK garatutako artikulua aurkituko dugu. Bertan, galdera eta kezka asko plazaratuko ditu egileak, eta zenbait hausnarketa mamitsu ere, kulturartekotasunaren eta haur literaturaren gainean.

Gero, *Hitzontzi* atalean, PATXI ZUBIZARRETAK (gidoia) eta IÑAKI HOLGADOK (marrazkiak) egindako komiki zoragarri batekin topo egingo dugu, istorio bizi batean murgiltzeko aukera paregabea. Jakina, gure eskerrak *XABIROI* aldizkariari, gurean argitaratzen uzteagatik.

Jarraian, ITZIAR ZUBIZARRETAK, Galtzagorri Elkartearen izenean «BULARRETIK MINTZORA» egitasmoa azalduko du *Hitzordu* sailean. Egitasmoa azaltzeaz gain, Itziarrek zenbait hausnarketa egiten ditu, erabat interesgarriak.

Segidan, *Hitz besten*, hainbat libururen erreseinak aurkituko ditugu.

Bukatzeko, *Hitzatze* zinez ikusgarria prestatu du KIRMEN URIBEK.

Azkenik, gorai pa dezagun PEDRO OSES ilustratzaile nafarrak egindako lana; ziur gaude guztion gozamenerako izango dela.

Baina *Hitzaurre* hau ezin genezake buka MANU LOPEZ GASENIK, zenbait urtetan, *Behinola* aldizkari honen alde egindako lan handia nabarmendu gabe. Hortaz, erredakzio-batzordearen aldetik, gure esker beroenak. Halere, nahiz eta erredakzio-batzordekide izan ez, oraindik *Hitz beste* atalean egiten dituen erreseinekin gozatzeko aukera izango dugu.

Eta *Hitzaurre* hau erabat finitzeko, erredakzio-batzordetik, gure ongietorri beroena ASUN AGIRIANORI.